

JUAN DE LA CIERVA 2021 **DOKTOREGO ONDOKO LAGUNTZEN DEIALDIA:** ***"Formación" modalitatea***

Dirulaguntzen ezaugarriak:

MCI-k 500 laguntzatarako deialdia egin du doktore gazteen lan kontratazioa suspertzeko, doktoregoaren ondoko lehenengo prestakuntza fasean berenganatutako gaitasunak finkatze aldera. 9 plaza gordetzen dira %33ko edo hortik gorako desgaitasuna duten pertsonak kontratatzeko eta beste 9 autonomia-erkidegoetako nekazaritza eta elikagaigintzako ikerketazentro publikoetan eta Nekazaritza eta Elikagaigintzako Ikerketa eta Teknologiako Institutu Nazionalen ikertzaileak kontratatzeko.

Kontratuen ezaugarriak:

Kontratuek bi urteko iraupena izango dute, gehienez.

UPV/EHU-n hasiko diren onuradunek jasoko duten ordainsaria UPV/EHUko irakasle-ikertzaileen negoziazio mahaiaren akordioan ezarritakoan araberakoa izango da, doktore-aurreko kontratua eta Espainiako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza sistemara sartzeko kontratua duten aldi baterako ikertzaileen araudia egokitzeari buruzkoa, 2021eko abenduaren 16an Gobernu Kontseiluak berretsi zuena.

Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:

Baldintzak deialdiko oinarrien 68. artikuluan kontsulta daitezke.

GARRANTZITSUA: Hautagaiak laguntza derrigor eskatu beharko dute doktorego aurreko prestakuntza jasotzeko erabilitako zentroa ez den **beste I+G zentro batean** hasteko. Helburu horri begira, bereizi egin behar dira doktore titulua ematen duen ikastegia (unibertsitatea) eta doktore titulua lortzeko gaitasun eta trebetasunez jabetzera bideratutako ikerketa jardueren multzoa garatu denekoa.

68.1.b) artikulua ezarritakoaren inguruan, aipatu beharrez gaudela UPV/EHUk ez duela mugikortasuna justifikatzeko memoriarik egingo.

UPV/EHUko tutoreek bete beharreko baldintzak:

Tutoreek bermatuta eduki beharko dute funtzionario lotura edo lan kontratua UPV/EHUrekin eskaera aurkezten denetik eta laguntzak irauten duen 2 urteak amaitu arte.

Tutoreak, modalitate honetan, eskaera bakarrez ager daitezke tutore gisa. Baldintza hori bete ezean, bi eskaeretatik kanpo geldituko dira.

GARRANTZITSUA:

Ikerketaren arloko Errektoreordetzak ez du balioztatuko baldintza hori betetzen ez duen eskaerarik.

Eskaerak aurkezteko epea hautagaientzat:

2022ko urtarrilaren 20tik hasita 2022ko otsailaren 3ko 14:00ak arte.

GARRANTZITSUA:

Hautagaiek berek aurkeztu beharko dute beren eskaera behar den moduan eta epean. UPV/EHUko Ikerketaren arloko Errektoreordetzak epe gehigarri bat izango du aurkeztutako eskaerak balioztatzeko, **2022ko otsailaren 10era arte**, hain zuzen ere.

Hautagaiek aurkeztu beharreko eskaera:

Eskatzaileek urrats hauek eman beharko dituzte:

1. Izena eman behar da Eskatzaileen Erregistro Bateratuaren (RUS) "Ikerlariaren erregistroa" atalean: <https://sede.micinn.gob.es/rus/>
2. Eskaera egiteko formularioa [aplikazio](#) honetan bete behar da.

Komeni da [ohiko galderen zerrenda](#) kontsultatzea MCIUren webgunean.

UPV/EHUko izapidea:

UPV/EHU-ra adskribatu gura diren hautagaiek hurrengo dokumentazioa igorri beharko dute, **2022ko otsailaren 3era arte (hori ere barne)**, pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbide elektronikora:

- a. Eskaera egiteko formularioa
- b. [Hautagaiaren CVA](#)
- c. NAN-aren kopia
- d. Doktore tituluaren kopia
- e. Datu pertsonalen fitxa, Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean eskura dagoen eredu.
- f. [Tutorearen CVA](#)
- g. Ikertaldearen historial zientifiko eta tekniko (5 urtekoa).

Ikerketaren arloko Errektoreordetzak **ez** du baliozkotuko epez kanpo jasotako dokumentazioa duen eskaerarik.

GARRANTZITSUA:

Bestalde, eskaera egiteko formularioa, jatorrizko eskuz egindako sinadura duelarik, **PAPEREAN** bidali beharko da posta ziurtatuaren bidez edo barne posta zerbitzuaren bidez, hurrengo helbidera:

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
Ikerketaren arloko Errektoreordetza (Deialdien Atala)
Errektoregoaren eraikina
Sarriena auzoa z/g
48.940 Leioa (Bizkaia)

MCIUko kontaktua:

Eskatzaileek MCIUri egin ahalko dizkiote kontsulta administratiboak zein informatikoak formulario honen bidez:

https://ciencia.sede.gob.es/pagina/index/directorio/utilidad_contacte_con_nosotros

UPV/EHUko kontaktua:

Zerbitzuaren hobe beharrez, kontsultak posta elektronikoaren bidez bidaliko dira pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbidera, gaiaren eremuan "Juan de la Cierva-Formación 2021" adierazita.

Informazio gehiago:

Klikatu -> [Esteka](#)